

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kepa Chertudi Ikazuriaga

*Kortezubi,
Bizkaia (1941)*

Aurkibidea



Biografia



Kortezubigojeaskoa
baserrikoa, aita bertakoa zen
(itsasoan ibilia zen, gerra
aurretik, karga-ontzietan
sukaldari); ama, berriz,
Kortezubiko Ugaldeberri
baserrikoa zen (gerra garaian
kartzelan egon zen eta haren
aita hil egin zuten,
Kortezubiko alkatea izan
zelako). Lau senidetan
zaharrena, Kepa (Pedro Mari
zen jaio zenean ipini zioten
izena) 11 urtera arte
Kortezubiko eskolan ibili zen;
urtebetez Gasteizen egon
zen, jesuiten barnetegian,
erdara ikasten, eta Gernika-
Lumon egin zuen Batxilergoa,
Corazonistekin (egunero
joaten zen, bizikletaz,
Kortezubitik). Magisteritza
ikasi zuen Bilbon eta Leioan
hasi zen lanean, Metalurgian.
Ingelesa ikasi nahi zuen eta
1968an Ameriketara joan
zen, Ontariora (Oregon);
Kepak 12 urte zituenean bere
aita artzain joan zen Burns
herrira (Oregon) eta zerrategi
batean zebilen lanean. Kepa
izeba baten etxera joan zen;
ingelesa ikasten eta
gaztelania irakasten egon zen
Ontario Unibertsitatean.
Ondoren azukre lantegi handi
batean hasi zen lanean,
Nyssa herrian (Oregon):
leihoak garbitzen hasi zen,
gero ingeniaria izan zen
(Rupert herrian) eta lantegiko
zuzendaria izatera iritsi zen;
1980tik Ogden herrian (Utah)
bizi da. Wendy Hyer
amerikarrarekin ezkondu zen
eta lau seme-alaba izan
zituzten. Boiseko euskal
komunitatearekin harreman
estua izan du eta Biotzetik
abesbatzakoa izan da.
Ameriketan bizi den Joseba
Chertudi anaia ere
elkarrizketatu genuen.

Zintak

KOR-008

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-17
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Chertudi Ikazuriaga, Kepa | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com